

BESTELAKO XEDAPENAK

LAN ETA ENPLEGU SAILA

4138

EBAZPENA, 2020ko irailaren 28koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Enplegurako Prestakuntzako eta Diru-sarrerak Bermatzeko zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita enpresek garatzen dituzten prestakuntza-ekintza estrategikoetarako 2020ko ekitaldirako laguntza ekonomikoen deialdian aurreikusitako ebaluazio-batzordearen osaera.

Lehentasunez langileei zuzendutako 2020ko prestakuntza-eskaintza finantzatzeko laguntzen deialdiaren 7. artikulua (2020-06-30eko EHAA), prozedura eta ebazpena arautzen dituenak, 3. atalean ezartzen du, eskabideak aztertu eta ebaluatze aldera, ebaluazio-batzorde tekniko bat sortuko dela. Honako hauek izango dira batzorde horretako kideak:

– Lanbideko Prestakuntzako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Zuzendaritzako Enplegurako Lanbide Heziketako Zerbitzuaren arduraduna.

– Enplegurako Lanbide Heziketako Zerbitzuko teknikari-profila duten hiru pertsona, berariaz izendatuak; horietako batek idazkari-lanak egingo ditu, eta hitza adierazteko zein botoa emateko eskubidea izango du.

Deialdiaren 7. artikulua araberak, ebaluazio-batzorde hori da aurkeztutako eskabideen ebazpen-proposamena egiteko arduraduna.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 49.2 artikulua dioenez, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da dirulaguntza emateko proposamena egiteko ardura duten organoen osaera.

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Ebazpen honek aipatzen duen deialdiaren 7. artikuluan aurreikusitako ebaluazio-batzordearen osaera jakinaraztea:

Batzordeburua:

– Itziar Etxebarria Lanborena, Enplegurako Lanbide Heziketako Zerbitzuaren arduraduna.

Idazkaria:

– Javier Armaolea Juaristi, Enplegurako Prestakuntza Zerbitzuko teknikaria.

Kide titularrak:

– Eduardo Campo Guillerna, Enplegurako Lanbide Heziketako Zerbitzuko teknikaria.

– Joseba Larrañaga Osinalde, Enplegurako Lanbide Heziketako Zerbitzuko teknikaria.

2020ko urriaren 8a, osteguna

Ordezko kideak:

- Miren Jone Irizar Ariceta, Enplegurako Lanbide Heziketako Zerbitzuko teknikaria.
- Veneranda Andrés Andrés, Enplegurako Lanbide Heziketako Zerbitzuko teknikaria.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 28a.

Enplegurako Prestakuntzako eta Diru-sarrerak Bermatzeko zuzendaria,
JESÚS LOSADA BESTEIRO.